



## **BIODIBERTSITATEA TESTUINGURUAN KOKATZEA. MARTIN SHARMAN, "POSITIVE VISIONS FOR BIODIVERSITY 2010" JARDUNALDIETAN**

### **Mintegian erakutsitako bideoko hitzaldiaren transkripzioaren itzulpena**

Badakit hemen zaudeten asko biodibertsitatean adituak zaretela, eta, ondorioz, ez da erraza izango ez dakizuen zerbait kontatzea. Baina oso garrantzitsua dirudi guztiok biodibertsitatearen esanahiaren inguruko ideia bera izatea.

Nire lana orain munduaren historia naturala 13 minutuan laburbiltzea da; beraz, azalpen orokor eta labur bat emango dizuet.

Ezin da gauza asko esan ilargiaren azalerari buruz: lehorra eta idorra da, eta ziurrenik ez da sekula izango bizileku atsegin bat.

Harago, planeta urdin eta eder bat ikus dezakegu. Urdina da arrazoi bategatik: bizitza daukalako eta, dakigula, unibertso osoan bizitza daukan planeta bakarra da. Edo, behintzat, bakarra da gure eguzki-sisteman. Eta biodibertsitateari esker du bizia, bizitza berari esker. Planeta honi bizitza eman dio, ozeano bat eta ur likidoa izateko aukera ematen duen atmosfera batez hornitu du. Eta, ozeano horretan, sakon-sakonean, orain sekula argirik ikusi ez duten organismoak (gizakiok sortutako argi artifizialak izan ezik) deskubritzen hasi gara. Organismo horiek bizirik mantentzeko erabiltzen dituzten prozesuak ulertzen hasi baino ez gara egin. Gure planeta ulertzen ez ditugun bizidunetz beteta dago. Azaleratik hurbil, guztiok ezagutzen ditugun bizidunak dauzkagu, baina izaki horiek ia gure planetaren bizitzaren hasieratik daude han. Oso antzinako izakiak dira, gure planetaren lurzorua gainean dauden gauza asko baino askoz lehenagokoak. Toki batzuetan landare, animalia, onddo, goroldio, liken... ugari ditugu, askotariko izaki bizidunak, alegia. Ez ditugu guztiak atsegin; are gehiago, batzuek ikaratu ere egiten gaituzte. Baina haien planetan bizi gara.

Biodibertsitatea ez da urruneko oihan batean edo parke natural babestu batean dagoen zerbait. Biodibertsitatea toki guztietan dago. Biodibertsitatea gizakiok betidanik balioetsi dugun zerbait da. Biodibertsitatearekiko atxikimendu kulturala dugu.

Hemen, biodibertsitatearen edertasunaren zati bat jaso nahi izan duen norbaitek egindako pintura bat dugu. [biodibertsitateak] Pertsonak, gizakiak, beste pertsona batzuei sentitzen dutena azaltzen saiatzera bultzatu ditu, nola eragiten dien emozionalki azaltzera... gizakiak duela milaka eta milaka urte leizeen barruan errautsa erabiltzen hasi zirenetik.

Beraz, hemen biodibertsitateak berarentzat zer esanahi duen jaso eta adierazi nahi duen norbait dugu, eta hori gauza kultural bat da. Beraz, biodibertsitatea gauza kultural eta emozional bat da, eta gure giza balioez beterik dago.

Baina, biodibertsitate gehiena ez da handia. Gehiena oso txikia da. Bakterioak dira, txiki-txikiak. Zuek, gizaki gisa, mila milioi zelula daukazuela esango nuke. Baina zuen gorputzean hamar aldiz bakterio gehiago bizi dira. Are gehiago, bakterio-kolonia bat zarete, gizakiak baino gehiago, eta agian ez zenekiten. Eta horrek goragalea eragiten badizue, hortxe daude komunak.

Baina bakterio horiek ez dizuete kalterik eragiten. Bizitzen laguntzen dizuete. Bestela ezingo zinatekete bizi. Bakterio horiek digestioa egiten laguntzen dizuete, arnasten duzuen oxigenoa prozesatzen duzuen moduan, etab. Barruan daukazuen bakterio guztiek, zuen



larruazaleko onddoek eta toki guztietakoek gizaki izaten laguntzen dizuete, gaixotasunik ez izaten eta bakterio gaiztoak arrastoan mantentzen.

Nolanahi ere, aipatzekoa da bakterio asko atsegin ditugula. Onddoak, gaztaren lizuna, ardoaren legamia, mahats horien pruina/patsa, liztorren eta pikuen arteko harreman bitxia (orain ez dut xehetasunekin azalduko), sukaldeko ohola, zuen mahaia... gauza horiek guztiak. Zuen gosaria oso-oso aspergarria izango litzateke biodibertsitateari esker izango ez balitz.

Eta interesgarriena da gizakiok biodibertsitatearen parte garela. Areto honetan ikusten duguna gizateriaren zatitxo bat da; noski, areto honetan askotariko pertsonak daude. Eta zuen geneak dira elkarrengandik bereizten zaituztetenak. Eta, zati batean, dibertsitate genetikoa da desberdin egiten gaituena. Hortaz, biodibertsitatea maila molekularrean ikusten da jada.

Era berean, biodibertsitatea espezieekin lotuta dago. Gizaki gisa, espezie batekoak gara. Eta planeta hau beste espezie batzuekin partekatzen dugu. Oso mota bitxietako espezieekin, hain zuzen. Baliteke batzuk ez ezagutzea edo ia ez ikustea espezie mota bat bezala. Espezie horiek oso modu konplexu eta interaktiboetan bizi dira elkarrekin eta ekosistemak osatzen dituzte.

Ekosistema bat ez da norbaitek kanpotik diseinatu duen gauza mekaniko bat. Elkarrekin eboluzionatzeko, elkarrekin bizitzeko eta elkarri zerbait emateko modua aurkitu duten espezie multzo bat da. Baina ekosistemek gizakioi ez ezik, beste organismo batzuei ere gauzak eskaintzen dizkiete. Duela 4 edo 5 urteko azterlan garrantzitsu batek, Milurtekoko Ekosistemen Ebaluazioa delakoak, naturak ematen digunaren inguruan pentsatzeko egitura bat eskaini zigun.

Mundu biziduna eta bere biodibertsitatea arretaz ikusten baditugu esan dezakegu mundu biziduneko ekosistemek zerbitzuak eman ditzaketela eta gizakientzako zerbitzu horiek hainbat gauza barne hartzen dituztela, adibidez, janaria, ura eta zuntza. Eta gauza horiek naturak ematen dizkigu. Eta hornikuntza-zerbitzu gisa sailkatzen ditugu.

Era berean, naturak klima erregulatzen laguntzen digu. Biodibertsitateak klima erregulatzen laguntzen du, uholdeak kontrolatzen laguntzen du, etab. Eta zerbitzu horiek erregulazio-zerbitzu gisa sailkatu ditugu.

Bestalde, biodibertsitateak, lehen esan dudan bezala, aisialdirako aukerak ematen dizkigu, atsedean hartzeko eta kontaktu emozionalerako aukerak. Eta hori zerbitzu kulturala dela esan dezakegu. Eta guretzat guztiontzat, nolabait, oso bistakoak direla iruditzen zait. Guztiok dugu horien inguruko berehalako irudi bat. Baina atzean, ziurrenik, kontuan hartu ez ditugun gauza asko daude, adibidez, lurzorua edo atmosferako airearen eraketak, oxigenoak, bai, karbono dioxidoak, bai, eta nitrogenoak ere bai, mundu bizidunean dutela iturria.

Eta, orduan, zer ematen digu? Ongizatea ematen digu. Biodibertsitaterik gabe ez genuke gauza miragarri hori izango, ongizatea, alegia. Eta ongizate hori, esate baterako, hondamendien aurreko segurtasunarekin dago lotuta. Bizitza on baten oinarritzko alderdiak, adibidez, janaria eta babesia eta osasuna, baita gizartea ere, gure harreman sozialen zati handi batek, gizartea batuta mantentzen duen loturak, biodibertsitatearekin harremanen bat dauka. Eta gauza horiek guztiek nahi duguna izateko aukera ematen digute. Beraz, biodibertsitateak opari handi bat egiten digu, gizaki izatearen altxor ikaragarria.

Naturak ematen digu, eta gizakiok jasotzen dugu: gizakiok naturari exijitzen dioguna.



Planeta bitan bereiz dezakegu: gizakiak eta gainerako bizidunak. Adibidez, ura eta lurra ere ikus ditzakegu. Nola partekatzen ditugu gainerako izaki bizidunekin?

Ikus dezagun lurraren kasua. Gutxi gorabehera erdia gizakion beharretarako kontsumitzen dugu, bai lurraren produktibitateari dagokionez, bai lurraren azalerari dagokionez. Basamortuak uzten ditugu, basamortu hotzak, izotz-geruzak, urruneko basoak, gainerako bizidunentzat. Eta ura? Planetara erortzen den uraren erdia erabiltzen dugu. Planeta honetako ur geza gizakiontzat da, gure uztetarako nahiz aintzira eta ibaietarako, eta industriarako edo edateko erabiltzen dugu.

Beraz, gizaki gisa, horren guztiaren erdia erabiltzen dugu, gutxi gorabehera.

Beno, baina nola egin dezakegu hori planeta kaltetu gabe? Bada, kontua da ezinezkoa dela. Eta hortxe hasten da arazoa; izan ere, une honetan planeta eta erdi beharko genuke exijitzen dugunari erantzuteko. Nola da posible? Beno, horrek esan nahi du urtero planetak landaredia berria sortzen duela, kontsumituko ditugun produktu berriak ematen dituela, baina guk lehenengo bederatzi hilabeteetan kontsumitzen ditugu. Eta gainerakoa [urteko beste 3 hilabeteetan kontsumitzen duguna] galtzen den biodibertsitateatik dator. Biodibertsitatearen galeraren hasiera da, kapitala jaten ari baikara, gure planetaren kapital naturala. Eta joera horrek berdin jarraitzen badu, 2050era arte planetari ekoizti ahal duena 2,8 aldiz ekoiztea exijitu diogula esan nahiko du.

Zergatik gertatzen da hori? Esan bezala, gizakiekin dago lotuta. Zientzialariak ez zaretenok, ziurrenik, ez dituzue grafikoak asko atsegin, eta, beraz, lasaiago azalduko dizuet, oso grafiko garrantzitsua dela uste baitut.

Ekzerrean, beheko aldean, 1750. urtea ikus dezakegu, hau da, gutxi gorabehera iparamerikarrak britainiarrengandik independizatzea lortu zuten garaia, hau da, britainiarrak Napoleon geldiarazten saiatzen ari zirenean eta Napoleon Europako zati bat menperatzen ari zenean. Beraz, hor 1750a daukagu. Orain 2000. urtera igaro gara. 2010a marra bertikala dagoen tokia da. Eta 2050a jardunaldi hauetan hizpide izango dugun urtea da. Iragana, oraina eta geroa ikus ditzakegu. Gorantz eskailera moduko bat dugu, eta, bertan, eskaileraren tarte bakoitza munduko 2 mila milioi pertsonari dagokio. 1750ean munduan mila milioi pertsona inguru zeuden. Gaur egun 6,5 mila milioi baino gehixeago daude. Ni jaio nintzenean, eta areto honetako pertsonarik zaharrenak jaio zirenean, 2 mila milioi pertsona inguru zeuden. Eta 2 mila milioi izatetik 6,5 mila milioi izatera igaro gara.

Eta nora goaz etorkizunean? 2050ari buruz ari gara hitz egin, eta nolakoa izango da etorkizuna? Noski, hori ez daki inork. Nazio Batuek diote kopuruak 8 mila milioi eta 12 mila milioi artekoak izango direla, agian. Bai, alde handia dago [aurreikuspenen datuetan]. Baina ez dirudi gaur egun baino gutxiago izango garenik. Hortaz, nola konponduko da planeta jende hori guztia mantentzeko? Beno, erantzun beharreko galderetako bat da.

Jakina, kontua ez da soilik gizakion biztanleria. Biodibertsitatearen galeraren arrazoi nagusietako bat planeta tratatzen dugun modua da: ondasunen, materialen, janariaren eta energiaren ekoizpena, eta kontsumitzen dugun modua. Bada, argi dago diru-sarrerara altuak dauzkaten herrialdeek gehiago kontsumitzen dutela. Denok dakigu. Eta, ondorioz, baliabide naturalak inportatu egin behar dituzte, beren lurzoru propioan ez dauzkatelako behar beste. Eta horrek esan nahi du, funtsean, biodibertsitatearen galera planetan gutxien garatuta dauden herrialdeetara esportatzen dutela. Gai honetan ez dago berdintasunik.

Beraz, munduko biodibertsitatearen galera, neurri handi batean, herrialderik aberatsenen arrastoa da.



Bada, biodibertsitatea galdu egin dela badiogu, zein da egoera? Beno, hasteko, serioki saiatu gara biodibertsitatearen galera ekiditen. Ereku babestuak sortu ditugu, eta 1970an 3 milioi kilometro karratu inguru izatetik gaur egun ia 18 milioi izatera igaro dira. Alegia, biodibertsitatearen galera geldiarazteko esfortzu handia egin dugu. Eta zientziak egin duenari dagokionez, azken aldirian ekosistemaren zerbitzuen inguruan lan handia egin da, Milurtekoko Ekosistemen Ebaluazioa egin zenetik. Eta, gainera, 1990an txostenik ez egotetik adituek 3 hilero 500 txosten inguru ebaluatu egotera igaro gara. Zientzialariak ahalegin handiak egiten ari dira biodibertsitatea ulertzeko eta galera geldiarazten saiatzeko.

Eta zein izan da planetaren erantzuna? Itxura hau dauka. Hemen Planeta Bizia indizea dugu, ornodunen populazioen joeren jarraipena egiten du, eta ikus dezakegu 1970ean arbitrarioki finkatutako 1eko indizea izatetik gaur egun 0,7 ingurukoa izatera igaro dela. Beraz, natura babesteko ahaleginen aurrean planetaren erantzuna ez da oso ona izan. Nola da posible?

Beno, ezer baino lehen biztanleria eta ondorioz kontsumoa eta biodibertsitatea eta ongizatearen galera ikusten baditugu, nola erantzun dezakegu horren aurrean? Izan ere, moduetako bat legeak definitzea izan da. Eta, agian, gauza guzti hauei buruzko legeak defini genitzakeen [biztanleria, kontsumoa, biodibertsitatearen galera, ongizatearen galera]. Eta zeri buruzko legeak egin ditugu? Biodibertsitate-galerarekin lotutako legeak egin ditugu. Biodibertsitatearen galera geldiarazten saiatu gara legeak eginez, parkeak sortuz, esparru honetan aldaketak lortzen saiatuz. Eta, noski, [biodibertsitatearen galeraren] motorrak aldatu ez badira, oso zaila da. Eta horrek azal dezake ahaleginak areagotzearen eta planetaren erantzuna gutxitzearen arteko itxurazko kontraesana.

Baina, zergatik da garrantzitsua? Lehenik, Planeta Biziaren Indizea ez da dagoen indize bakarra. Beste adierazle asko daude, eta honen antzeko zerbait erakusten dute. Bigarrenik, etorkizun urrun batean geologo bat irudikatzen baduzue gaur egungo erregistro fosilari begira, pertsona hori erregistro fosilean dinosauroak desagerrarazi zituenaren pareko desagertze-prozesu bat ikusten ari liteke. Beraz, gizakiak planetaren gainean duen eragina geologikoki garrantzitsua dela esan dezakegu.

Eta, jakina, askotan esan dudana bezala, ongizatea arriskuan jartzen ari da, agian ez herrialde aberatsetan, baina bai, ziur, biodibertsitatea azkarrago galtzen ari den tokietan.

Ez nahiz xehetasunak azaltzen hasiko. Oso diapositiba negargarria da hau. Nahi baduzue, bota begiradaxo bat banatuko zaizuen materialari, hemendik are goibelago irten nahi baduzue.

Esan nahi dudana da gainbehera horren sintoma ugari daudela. Baina orain aldatzeko aukera dugu. Uste dut guztiok arrazoi hauengatik [diapositiban azaldutakoak] gaudela gela honetan, ziurrenik. Badakigu zein diren gure planeta bizidunean nahi ez dugun aldaketa hori eragiten duten arrazoiak. Gu aldaketa horien motorrak gara. Gu, gizakiok, aldaketa horien motorrak gara. Hori dela eta, guk, gizakiak izanik, gauzak alda ditzakegu. Baina, horretarako, onartu behar dugu mundu guztiak ezin dituela izan gaur egun herrialde aberatsetan dauden luxuak. Horrek esan nahi du gutariko askok gauza batzuei uko egin beharko diegula, atsegin ditugula usten dugun baina egiatan kalte egiten diguten gauza batzuei uko egin beharko diegu. Nire ustez, adikzioak dira. Azkar jokatu behar dugu, eta horregatik sentitzen dugu, nire ustez, larritasuna hemen bilera honetan egoteko arrazoiarekin lotuta. Guztiok dugu zeregin bat. Gela honetan gauden guztiok dugu zeregin bat. Guk, enbaxadore gisa, gero, zeregin bat gauzatu beharko dugu, eta mezua zabaldu beharko dugu.



Nire ustez, eta nirekin ados egotea espero dut, erronka 2 egun hauetan elkarrekin lan egitea da, gure sormena piztea elkarrekin historia bat sortzeko, etorkizunetik, gizakiek beren planeta gainerako izaki bizidunekin modu orekatuan partekatzeko modua aurkitu izanarekin lotuta, hainbat alderdi kontuan hartuz, adibidez, janaria, ura, energia eta hondakinen kudeaketa, eta gizakiek biodibertsitatean beren tokia modu kontzientean eta osoan bete dezaten.

Eskerrik asko.